# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2023ko maiatzaren 4a | 60. ZK.


### A U R K I B I D E A


A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—10-23/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Deialdia, merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) betetzeko, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan. Izendapen-proposamena (3. or.).

—Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2022ko ekitaldiko urteko kontuak (4. or.).

—Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila). Izendapena (11. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua. Akats zuzenketa (12. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# 10-23/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia ematekoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzekoa.

*AKATS ZUZENKETA*

Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan kreditu berezia emateko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzeko apirilaren 5eko 16/2023 Foru Legean akats bat atzeman da. Foru Legea 2023ko apirilaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

1 artikuluan, honako hau esan ordez:

| | |
|---|---|
| “210001 21300 7609 261698 (E) Transferentzia Milagroko Udalari: udal ur-kontsumoaren kontagailuak eta sektorizazioa” | 85.000” |

Honako hau esan behar du:

| | |
|---|---|
| “210001 21300 7609 261687 Milagroko Udala: Ur-galerak murrizteko jarduketak, sarearen digitalizazioa eta kontagailuak | 85.000” |

Iruñean, 2023ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesia

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Deialdia, merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) betetzeko, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan.

**Izendapen-proposamena**

2022ko urriaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Arartekoaren esku utzi zuen administrari plaza bat (C maila) lehiaketa bidez betetzeko deialdia egiteko eskumena; plaza hori Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikita dago eta iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko neurriak hartzearen esparruan deitzen da.

2022ko abenduaren 12ko 40/22 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Arartekoak onartu zuen Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2022ko abenduaren 27an, 259. zenbakian, eta Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, 2022ko abenduaren 27an, 150. zenbakian.

2023ko apirilaren 20an deialdiaren epaimahai kalifikatzaileak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta erakunde horren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduarekin bat etorriz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

**Lehena**.- Onartzea Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza bat (C maila) merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdiaren epaimahai kalifikatzaileak izendapen-proposamena, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde:

ECHEVERRÍA BELOQUI, Mª ANTONIA

**Bigarrena**.- María Antonia Echeverría Beloqui andreari eskatzea deialdiaren 7.2. oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkez diezaiola Nafarroako Arartekoaren instituzioari, 30 egun naturaleko epean, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Hirugarrena**.- Ebazpen honen berri ematea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, 2022ko urriaren 10eko Akordioan aurreikusitakoarekin bat, interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Arartekoaren instituzioaren web orrian argitaratzeko agintzea.

Iruñea, 2023ko apirilaren 20a

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

# Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2022ko ekitaldiko urteko kontuak.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrak, 2023ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Mahaiaren eskura jartzen dute Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura 2022ko ekitaldian jasotako ordainsarien kontabilitatea. Horretarako aurkezten dituzte 2022ko ekitaldiaren urteko kontuen eredu laburtuak, barne hartzen dituztenak Balantzea, Emaitza-kontua eta Memoria.

Dokumentazioa aztertu ondoren, zeinari eransten baitzaio, “Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko Arau”en 17. artikuluak zehaztu bezala, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako txosten teknikoa, eta aipatu arauetan xedatutakoaren arabera, hona ERABAKIA:

Adieraztea jakitun dagoela talde parlamentario bakoitzak eta foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura 2022ko ekitaldian jasotako ordainsarien berariazko kontabilitateaz, “Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko Arau”en 17. artikuluak zehaztu bezala jasotakoak, eta horretarako onetsitako urteko kontuen eredu laburtuekin bat.

Agintzea Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Balantzearen eta Emaitza-kontuaren koadro normalizatuak ere (2. eranskina), talde parlamentario bakoitzak eta foru parlamentarien elkarteak 2022ko ekitaldian jasotako ordainsarien kontabilitateari dagozkionak.

Erabaki hau Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari jakinaraztea.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *18.748,55 €* | *1.615,00 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 18.748,55 € | 1.615,00 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **18.748,55 €** | **1.615,00 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *6.077,55 €* | *- 308,00 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 6.077,55 € | - 308,00 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | - 1.588,45 € | - 503,00 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | 7.666,00 € | 195,00 € |
| | | - € | |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | *12.671,00 €* | *1.923,00 €* |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | | |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | 12.671,00 € | 1.923,00 € |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | | |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | 12.671,00 € | 1.923,00 € |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | | |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **18.748,55 €** | **1.615,00 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 934.716,00 € | 916.308,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 934.716,00 € | 916.308,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **934.716,00 €** | **916.308,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 792.000,00 € | 773.165,00 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | - |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | 135.050,00 € | 142.948,00 € |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | 135.050,00 € | 142.948,00 € |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | - | - |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **927.050,00 €** | **916.113,00 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **7.666,00 €** | **195,00 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | - | - |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - | - |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **7.666,00 €** | **195,00 €** |

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *294,31 €* | *44,19 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 294,31 € | 44,19 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **294,31 €** | **44,19 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *294,31 €* | *44,19 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 294,31 € | 44,19 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | 44,19 € | 38,49 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | 250,12 € | 5,70 € |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | - | - |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | | |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | | |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | - | - |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **294,31 €** | **44,19 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 599.508,00 € | 587.712,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 599.508,00 € | 587.712,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **599.508,00 €** | **587.712,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 599.000,00 € | 587.600,00 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | - |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | 257,88 | 106,30 |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | 257,88 | 106,30 |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | - | - |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **599.257,88 €** | **587.706,30 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **250,12 €** | **5,70 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | - | - |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - | - |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **250,12 €** | **5,70 €** |

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *81.296,00 €* | *237.958,00 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 81.296,00 € | 237.958,00 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **81.296,00 €** | **237.958,00 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *1.379,00 €* | *1.441,00 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 1.379,00 € | 1.441,00 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | 1.441,00 € | 725,00 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | - 62,00 € | 716,00 € |
| | | - € | |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | *79.917,00 €* | *236.517,00 €* |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | 79.917,00 € | 236.517,00 € |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu b | - | - |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | - | - |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | - | - |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **81.296,00 €** | **237.958,00 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 485.304,00 € | 475.752,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 485.304,00 € | 475.752,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **485.304,00 €** | **475.752,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 485.366,00 € | 475.000,00 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | - |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | - | - |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | - | - |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | - | - |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **485.366,00 €** | **475.000,00 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **- 62,00 €** | **752,00 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | 36,00 |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | - | - |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - | - 36,00 |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **- 62,00 €** | **716,00 €** |

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *109,52 €* | *31,52 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 109,52 € | 31,52 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **109,52 €** | **31,52 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *109,52 €* | *31,52 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 109,52 € | 31,52 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | 31,52 € | 78,50 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | 78,00 € | - 46,98 € |
| | | - | |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | - | - |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | - | - |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | | |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | - | - |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | | |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **109,52 €** | **31,52 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 422.160,00 € | 413.856,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 422.160,00 € | 413.856,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **422.160,00 €** | **413.856,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 421.161,00 € | 413.017,02 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | - |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | - | - |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | - | - |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | - | - |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **421.161,00 €** | **413.017,02 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **999,00 €** | **838,98 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | 921,00 € | 885,96 € |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - 921,00 € | - 885,96 € |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **78,00 €** | **- 46,98 €** |

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *2.091,38 €* | *292,79 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 2.091,38 € | 292,79 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **2.091,38 €** | **292,79 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *2.091,38 €* | *187,07 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 2.091,38 € | 187,07 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | 187,07 € | 20.214,28 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | 1.904,31 € | -20.027,21 € |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | - | *105,72 €* |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | - | 105,72 € |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | | |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | | |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **2.091,38 €** | **292,79 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 213.240,00 € | 209.052,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 213.240,00 € | 209.052,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **213.240,00 €** | **209.052,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 209.052,00 € | 226.473,00 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | 2.283,69 € | 2.606,21 € |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | 2.283,69 € | 2.606,21 € |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | - | - |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **211.335,69 €** | **229.079,21 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **1.904,31 €** | **- 20.027,21 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | - | - |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - | - |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **1.904,31 €** | **- 20.027,21 €** |

**EGOERA-BALANTZE LABURTUA** ALDIA: 2022

**IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EGOERA-BALANTZEA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **AKTIBOA** | | |
| | *B) AKTIBO KORRONTEA* | *6.501,38 €* | *2.291,73 €* |
| 30, 32, (39) | I. Izakinak | - | - |
| 42,460, 464, 544, 581 | II. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 480,567 | III. Epe laburreko ekintzak | - | - |
| 570, 571, 580 | IV. Diruzaintza | 6.501,38 € | 2.291,73 € |
| | **AKTIBOA, GUZTIRA (B)** | **6.501,38 €** | **2.291,73 €** |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA** | | |
| | *A) ONDARE GARBIA* | *6.501,38 €* | *2.291,73 €* |
| | A-1) Sortutako ondarea | 6.501,38 € | 2.291,73 € |
| 120, (121) | I. Aurreko ekitaldietako soberakinak | 2.291,73 € | 1.677,44 € |
| 129 | I. Ekitaldiko soberakina | 4.209,65 € | 614,29 € |
| | *C) PASIBO KORRONTEA* | - | - |
| 451, 51, 52, 56, 58 | II. Epe laburreko zorrak | - | - |
| | III. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | - | - |
| 465.450.475.476.477 | Langileak eta administrazio publikoekiko zorrak | - | - |
| 400,401,41 | Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak | - | - |
| 485,568 | IV. Epe laburreko ekintzak | | |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+C)** | **6.501,38 €** | **2.291,73 €** |

**EMAITZA-KONTU LABURTUA** ALDIA: 2022

**IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOA**

| Zenb. KONTUA | TALDE PARLAMENTARIOAREN EMAITZA-KONTUA | 2022ko EKITALDIA | 2021eko EKITALDIA |
|---|---|---|---|
| | **DIRU-SARRERAK** | | |
| 700.701.702.703.704 | 1. Jatorri publikoko diru-sarrerak | 181.668,00 € | 178.104,00 € |
| | a. Funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzak | 181.668,00 € | 178.104,00 € |
| | **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1)** | **181.668,00 €** | **178.104,00 €** |
| | **GASTUAK (negatiboan)** | | |
| (600) | 2. Entitate atxikien intsuldaketa (8/2007 LO, 2.e art.) | 176.400,00 € | 176.400,00 € |
| (640),(641),(642),(649) | 3. Langile gastuak | - | - |
| | a) Soldatak eta lansariak | - | - |
| | b) Gizarte-zamak | - | - |
| (62),(639),(634), (694), (600), (602), | 4. Funtzionamendu, antolamendu eta jarduera arrunteko gastuak | 1.058,35 € | 1.089,71 € |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | 633,78 € | - |
| | b) Hornikuntzak eta bestelako hornidurak | - | - |
| | e) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | 424,57 € | 1.089,71 € |
| | **B. KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (2+3+4+5)** | **177.458,35 €** | **177.489,71 €** |
| | **I. JARDUERA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)** | **4.209,65 €** | **614,29 €** |
| 760.761.762.768.769 | 6. Diru-sarrera finantzarioak | - | - |
| (660),(662),(665),(668),(669) | 7. Gastu finantzarioak (negatiboan) | - | - |
| | **II. OPERAZIO FINANTZARIOEN EMAITZA (6+7)** | - | - |
| | **III. EKITALDIKO EMAITZA (I+II)** | **4.209,65 €** | **614,29 €** |

# Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

**Izendapena**

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorreko Mahaiak, 2023ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila) merezimenduen lehiaketa bitartez betetzeko merezimendu-lehiaketa, zeinaren deialdia 2022ko abenduaren 15eko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2022ko abenduaren 27ko 259. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2023ko martxoaren 27ko Erabaki bidez onetsi zen, eta 2023ko martxoaren 29ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko martxoaren 31ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, merezimendu-lehiaketako epaimahaiak egindako izendapen proposamena, honako hauen aldekoa, hain zuzen ere: Joseba Marínez Itoiz jauna (komunikazio-teknikaria, A mailakoa); Francisca Palma Romero andrea (administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikaria, B mailakoa); Florencio José Enecoiz Segura jauna (mantentze-lanetako teknikari-ofiziala, C mailakoa), eta Ana Isabel Esnoz Larrey andrea (gelazaina, D mailakoa).

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du interesdunek deialdiko 8.3 oinarrian adierazita dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta moduan aurkeztu izanari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 9. oinarrian ezarritakoarekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Joseba Marínez Itoiz jauna izendatzea Teknikarien Kidegoko Goi mailako Teknikarien Eskalako komunikazio-teknikari (A mailakoa), Idazkaritza Nagusiko Prentsa Atalari atxikirik.

2. Francisca Palma Romero andrea izendatzea Teknikari Diplomadunen Eskalako Teknikarien Kidegoko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikari (B mailakoa), Zerbitzu Orokorrei atxikirik.

3. Florencio José Enecoiz Segura jauna izendatzea Teknikari-ofizialen Kidegoko mantentze-lanetako teknikari-ofizial (C mailakoa), Zerbitzu Orokorrei atxikirik.

4. Ana Isabel Esnoz Larrey andrea izendatzea Gelazainen Kidegoko gelazain (D mailakoa), Zerbitzu Orokorrei atxikirik.

5. Ezartzea interesdunek hilabeteko epea izanen dutela, izendapena jakinarazten zaienetik aitzina, beren karguaren jabetza hartzeko.

6. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta Zerbitzu guztietako buruei igortzea.

7. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**H saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

# 10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua.

*AKATS ZUZENKETA*

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan akatsak atzeman direnez -2023ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen-, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean:

178. artikuluaren 2. apartatuan:

Honako hau esan ordez:

“2. Kontuen Ganberak irizpena eman ondoren, bere lehendakariaren bitartez irizpen hori Legebiltzarreko Mahaiari helaraziko dio, zeinak Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu eta Ekonomia eta Ogasun Batzordeari bilera egiteko deialdia eginen baitio Kontuen Ganberako lehendakaria bertara ager dadin, erregelamendu honetako 230. artikuluan ezarritako zertzeladak beterik”.

Honako hau esan behar du:

“2. Kontuen Ganberak irizpena eman ondoren, bere lehendakariaren bitartez irizpen hori Legebiltzarreko Mahaiari helaraziko dio, zeinak Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu eta Ekonomia eta Ogasun Batzordeari bilera egiteko deialdia eginen baitio Kontuen Ganberako lehendakaria bertara ager dadin, erregelamendu honetako 229. artikuluan ezarritako zertzeladak beterik”.

226. artikuluaren 2. apartatuaren 1. paragrafoan:

Honako hau esan ordez:

“2. Oro har, Erregelamendu honetako IV. kapituluko V. tituluan ezarritako arauak aplikatuko dira eztabaidan. Betiere, ondoko apartatuetan ezarritakoari begiratuko zaio:”

Honako hau esan behar du:

“2. Oro har, Erregelamendu honetako V. tituluko IV. kapituluan ezarritako arauak aplikatuko dira eztabaidan. Betiere, ondoko apartatuetan ezarritakoari begiratuko zaio:”

229. artikuluaren 3. apartatuan:

Honako hau esan ordez:

“3. Erregelamenduaren 157.2 artikuluan jasotako kasuari dagokion Kontuen Ganberako lehendakariaren agerraldia hasiko da emandako irizpenari buruzko azalpen batekin. Erregelamenduaren 228. artikuluan azaltzen denaren arabera eginen da aipatu agerraldia”.

Honako hau esan behar du:

“3. Erregelamenduaren 178.2 artikuluan jasotako kasuari dagokion Kontuen Ganberako lehendakariaren agerraldia hasiko da emandako irizpenari buruzko azalpen batekin. Erregelamenduaren 228. artikuluan azaltzen denaren arabera eginen da aipatu agerraldia”.

239.7. artikuluan:

Honako hau esan ordez:

“Zazpigarrena. Behin Foru Araubideko Batzordeak Arartekoa izateko hautagaia proposatuta, Osoko Bilkurak, aldez aurretik batzarra egiteko deituta, hautatuko du paper bidezko bozketa sekretu bidez parlamentarien botoen hiru bostenen gehiengoa lortzen badu. Hautagaiak gehiengo hori lortzen badu, Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko hautatuko da.

Adierazitako gehiengoa lortzen ez bada, Legebiltzarreko Mahaiak, Osoko Bilkurak baztertu duen hautagaitza baino proposamen gehiago baldin badaude, Foru Araubideko Batzordea deituko du Ararteko izateko beste hautagai bat hauta dezan, Osoko Bilkuraren batzarra egin eta gehienez ere hilabeteko epean, seigarren arauan ezarritako eran eta ondorioekin. Hautagai-proposamen bakarra badago eta Osoko Bilkurak baztertzen badu, hautatze-prozesua amaituko da eta prozesu berri bati ekinen zaio, zazpigarren arauko bigarren paragrafoan aurreikusitako eran”.


12

Honako hau esan behar du:

“Zazpigarrena. Behin Foru Araubideko Batzordeak Arartekoa izateko hautagaia proposatuta, Osoko Bilkurak, aldez aurretik batzarra egiteko deituta, hautatuko du paper bidezko bozketa sekretu bidez parlamentarien botoen hiru bostenen gehiengoa lortzen badu. Hautagaiak gehiengo hori lortzen badu, Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko hautatuko da.

Adierazitako gehiengoa lortzen ez bada, Legebiltzarreko Mahaiak, Osoko Bilkurak baztertu duen hautagaitza baino proposamen gehiago baldin badaude, Foru Araubideko Batzordea deituko du Ararteko izateko beste hautagai bat hauta dezan, Osoko Bilkuraren batzarra egin eta gehienez ere hilabeteko epean, bosgarren arauan ezarritako eran eta ondorioekin. Hautagai-proposamen bakarra badago eta Osoko Bilkurak baztertzen badu, hautatze-prozesua amaituko da eta prozesu berri bati ekinen zaio, seigarren arauko bigarren paragrafoan aurreikusitako eran”.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950